

Zure Bizitza Indian

Tu Vida en India



Exposición itinerante e interactiva
Erakusketa ibiltari eta interaktiboa

IRAKASLEGOARENTZAKO gida



ALBOAN

Jesulek sortu eta bultzatutako Fundazioa
ONG promovida por los Jesuitas
www.alboan.org



1. SARRERA

Gujarat Indiako estatuan egiten dugun lanari esker, ALBOAN erakundean ongi dakigu zer baldintzatan dauden munduan, oro har, eta Indian, bereziki, egoera ahulean bizi diren komunitateak, eta gainera, badugu egoera hori ezagutarazteko gaitasuna. Horrez gain, nazioarteko hainbat ekimenetan hartzen dugu parte, hezkuntzari eta eskolara joateko aukerari dagokionez hainbat lekutan bizi duten egoera salatzeko eta hura hobetzeko ahaleginean gero eta pertsona eta talde gehiagok parte har dezaten lortzeko.

Xede horrekin, ALBOAN erakundeak erakusketa interaktibo bat antolatu du Indiari, Indiako adivasi indigenei eta adivasiek eskolara joateko dituzten aukerei buruz. Helburua da Indian, oro har, eta komunitate aborigenek (adivasiek), bereziki, eskolara joateko aukerari dagokionez zer errealitate bizi duten ezagutaraztea, eta haiekiko elkartasuna areagotzea.

Erakusketa hori Hezkuntzaren Aldeko Mundu Mailako Kanpainarekin lotu dugu (<http://www.educacion.alboan.org/es/categories/1169/materials>), doako eta kalitatezko hezkuntza izatearen garrantzia azpimarratzen baitu.

Gida honetan zure ikasleek izan ditzaketen zalantzak argitzeko informazioa aurkituko duzu. Bertan, Indiari eta, bereziki, adivasien komunitateari buruzko informazioa dago. Gidaren amaieran, zenbait jarduera daude, erakusketan ageri diren edukiak lantzeko. Jarduera horiek erakusketa ikusi aurretik, ikusi bitartean eta ikusi ondoren lantzekoak dira, eta material guztiak daude Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat prestatuta.

Askotariko jarduerak dira, eta taldean hausnartzera eta eztabaidatzera bultzatzen dute. Edukiak askotarikoak dira, eta ikasleen adin zehatzera egokitu ahal izango dituzu, betiere zure metodologia pertsonala oinarri hartuta. Azken jardueran, Hezkuntzaren Aldeko Mundu Mailako Kanpainaren mobilizazioekin bat egitea proposatzen dizuegu.

Ikasgelan, elkartasunean hezteko lanarekin jarraitzeko, baliabide ugari dituzu ALBOANen webgunean: <http://www.educacion.alboan.org/eu>.

Material hauek diseinatzeko, Anna Vivesen tipografia erabili dugu. Anna Vives Down sindromea duen neskato bat da, eta bere letra-tipografia sortu du, edozein testu-prozesadoretan idazteko, Word-en, esaterako.

Talde oso bat ordezkatu nahi duen Annaren ekimen honen xedea da letra hori zabaltzea, eta letrari lotutako balioak indartzea: gizarte-berdintasuna, batetik, eta gaitasunak batuz taldean lan egitearen garrantzia, bestetik.

Anna 2011ko irailean hasi zen bere letra lantzen, pertsona-talde baten laguntzaz, eta urtebete geroago, edozein ordenagailutan idatz daitekeen digitalizazio alfabetikoa lortu du.

Horri buruz informazio gehiago nahi izanez gero, webgune honetan aurki dezakezu: http://www.annavives.com/?page_id=296

2. HELBURU ZEHATZAK

1. Munduan hezkuntzaren arloan bizi den errealitatea gerturatzea, eta jendea ekintza jakin batzuetan esku hartzera bultzatzea.
2. Adivasien errealitatea ezagutaraztea, haiek bizi duten egoera ulertzea, eta elkartasuneko ekintza jakin batzuetan esku hartzea.
3. Gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunen berri ematea, giza eskubideen urraketen ikuspegia oinarri hartuta.
4. Munduari begiratzeko hainbat modu daudela ohartzea eta horretaz jabetzea, eta beste komunitate batzuetako errealitatea aztertzea.
5. Munduan dagoen pertsona- eta kultura-aniztasuna onartzeko eta kontuan hartzeko lan egitea.
6. Neska-mutilak hausnartzera bultzatzea, beren bizitzari eragin diezaioketen erabakiak hartu aurretik.

3. METODOLOGIA

Erakusketa elementu hauek osatzen dute:

- Ibilbideen eta koloreen arabera banatutako panelak
- Bost zentzumenen adivasien mandala
- Telebista.
- Ibilbideak jarraitzeko zenbatutako urratsak.
- Irakasleentzako gida. Honen barruan aurkituko duzu:
 - Ibilbideen mapa (30/31 orr.)
 - Aurki ezazu zure abentura flyerra (24.orr)



Jarduerak garatzeko proposatutako metodologiak esperimentazioa, hausnarketa eta azterketa hartzen ditu ikaskuntza eraikitzeko eta aurkikuntza errazteko oinarri. Bide hori indartzen dugu, "Aukeratu zure abentura" liburuen antzeko metodologia aplikatuz; hau da, erakusketa ikusiko duten pertsonen aukerak egin eta erabakiak hartu beharko dituzte, beren bizitza nora bideratu erabakitzeko.

Erakusketan, hainbat jarduera-proposamen daude, erakusketa ikusi aurretik, unean bertan eta ondoren egin behar direnak. Hainbat ibilbideren diseinua baliatuz, lortu nahi da ikasleak berak erabakitzea zein alderdik sortzen dion interes gehien; hartara, aurkeztutako hainbat ezagutza-ildo aukeratuz, barne-hausnarketarako eta taldeko hausnarketarako guneak sortuko dira. Hau da, ez dira ikasleak baldintzatu nahi, eta ikaskuntza-prozesu osoan, haiek dituzten kezkak eta zalantzak aintzat hartzen saiatuko gara.

Sei ibilbide daude, eta taldean lan egiteko eremu elkarreragile bat. Proposatutako ibilbideetako bat egin ondoren, beste batera pasatu daiteke, aurrez zehaztutako ordenarik gabe; izan ere, ibilbide bakoitza bereizita ere uler daiteke. Horri esker, ibilbide bakoitzarekin eduki zehatz batzuk landu daitezke. Ikasleek esku hartzea lortu nahi da, haien afektibitatea landuz.

Ibilbide desberdin horiek egin eta gero, eremu nagusi batera pasatuko gara, eremu elkarreragile batera; espazio horretan mandala bat eta telebista-pantaila bat daude. Bertan, besteak beste, adivasiaren kulturako berezko objektuak, arropak eta elikagaiak ikusi, ukitu, entzun, dastatu eta usaindu ahal izango dituzue haurrek. Horrez gain, erakusketan landutako gaietako buruzko bideoak proiektatuko dira.



4. EBALUAZIOA

Erakusketaren eragina balioesteko eta ezarritako helburuak zer neurritan bete diren jakiteko, behaketa-erregistro bat egin da (beherago dago), taldearen ebaluazioa egitean kontuan hartu beharreko irizpide nagusiak biltzen dituen. Interresgarria iruditzen zaigu irakaslearen zein ikaslearen ebaluazioak izatea.

Irizpideak:

1 – Inola ere ez ados

5 – Guztiz ados





Ikasleek Bete Beharrekoa

Adierazpenak	Erakusketaren aurretik	Erakusketaren ondoren
1. Badakit zer egoeratan bizi diren adivasiak		
2. Badakit munduko hainbat lekutan egoera desberdinak bizi direla, bai eta oso garrantzitsua dela hezkuntza pertsonen garapenerako.		
3. Jabetzen naiz zer desberdintasun dauden emakumeen eta gizonen giza eskubideak errespetatzeari dagokionez.		
4. Pertsona guztiek kalitatezko hezkuntza izan dezaten babesteko ekintzetan parte hartu nahi dut.		





Irakasleek Bete Beharrekoa

Behaketa-erregistroa	1	2	3	4	5
<i>1. Lankidetzak-ohiturak</i>					
a) Taldeko lanetan aktiboki parte hartzea.					
b) Taldean lan egiteko arauetara egokitzea.					
c) Pertsona bakoitzak lankidetzazko lanetan duen partaidetzaren eraginkortasuna.					
<i>2. Komunikazio-jarrerak</i>					
a) Hezitzailearen eta haurren arteko komunikazioen maiztasuna, haurrek eragindakoak direnak.					
b) Ikaskideen artean ideiak eta iritziak trukatzeko maiztasuna.					
e) Besteen iritziak eta ideiak aintzat hartzeko gaitasuna.					
<i>3. Elkarrekikotasuna eta elkarri laguntzea</i>					
a) Neurri batean bat datozen iritziak onartzeko gaitasuna.					
b) Erabakiak hartzen eta bat ez datozen iritziak bateratzen laguntzen duten maiztasuna.					
<i>4. Autonomia-maila</i>					
a) Eztabaidetan eta jardueretan izaten diren ekimenen maiztasuna.					
b) Egoera konplexuetan erabakiak hartzeko gaitasuna.					
c) Jokabide kritiko eta eraginkorra.					





5. TESTUINGURUA

5.1 Historia

K.a. XVI. mendean, ariarrak (indoeuropearrak) Indiara iritsi ziren, eta bertako biztanleak mendean hartu zituzten. Sanskrito hizkuntza sartu zuten, Indiako hizkuntza gehienek oinarri dena.

Eratu zuten zibilizazio hark, vedikoak, kastatan banatutako sistema zurrun bat zuen oinarri, eta bertan, konkistatzaileek osatzen zuten noblezia menderatzailea.

K.a. VI. mendea nahasmen sozial eta intelektual handiko aldia izan zen Indian. K.a. III. mendearen amaiera aldera, C. Chandragupta Mauryak Indiaren iparraldeko bateratu zuen, eta Indiako lehen inperio handia eratu. 700. urtean, musulmanak indarrez sartzen hasi ziren, eta horrek eragin handia izan zuen Indiako kulturari: hizkuntza, janzkerak, arkitektura eta gizarte-balioetan. 1922. urtean, musulmanen agintea behin betiko gelditzeko iritsi zen eremu hartara



Britainia Handiak Ekialdeko Indietako Konpainia Ingelesaren bidez gobernatu zuen India. 1687an kokatu ziren Bombayn, eta XVIII. mende osoan, haien armada bereziak Frantziako tropen aurkako gerra egin zuen; azkenean, 1784an garaitu zituzten.

Indiako ekonomia desegin zen, eta porrot egin zuen oihalak esportatzeko negozioak; tradizio handiko negozio hura bizibide garrantzitsua zen herrialdeko biztanleentzat. Galera hark pobrezia-egoerara eramane zituen nekazari asko eta asko. Lursailak berrantolatzen zituzten, Britainiako diru-kutxak aberasten zituzten zergak errazago kobratzeko. Nekazariak, bestalde, beren ekoizpen tradizionala aldatzera behartu zituzten, eta esportatzeko produktuak lantzen. Horren ondorioz, gosete handiak izan ziren.

Sortzez bertakoak ziren pertsonak kolonia-administrazioan gaitzeko egokitutako hezkuntza-sistemaren ondorioz, Europako kulturarekin eta pentsamendurekin lotutako elite intelektual bat sortu zen.

Ghandi hinduismoaren, tolerantziaren, erlijio guztien arteko senidetzearen eta indarkeriarik ezaren (Ahimsa) jarraitzaile sutsua izan zen. Haren ekimenez, Indiako Kongresuak Lankidetzarik Gabeko Mugimendua (1920-1922) eta Gizarte Desobedientzia (1930) mugimenduak bultzatu zituen. Mugimendu horiek, besteak beste, irizpide hauek zituzten oinarri: hauteskundeetan edo administrazio-erakundeetan parte ez hartzea, eskola ingelesetara ez joatea, indarkeriarik ez erabiltzea, produktu ingelesak ez kontsumitzea, eta erabaki horiek eragin zitzaizkeen zigorrak pasiboki onartzea. Gandhi ingeles kolonialekin hitz egiteko derrigorrezko mintzaide bihurtu zen; horrenbestez, Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, ez zuten independentziaz (1947) negoziatzea beste aukerarik izan.

Azpikontinentea bi estatutan banatuta geratu zen azkenean; alde batetik, Indiako Batasuna, eta bestetik, Pakistan, musulmanak estatu bakarrean biltzeko sortua. Indiako Batasunean (Britainiako koroatik independentzia lortu berrikan sortutako estatuaren lehen izena), etnia, hizkuntza eta kultura desberdineko hainbat talde bildu ziren. Hasiera batean, harreman gatazkatsua izan zuten, eta sarraski ugari izan ziren; Gandhik, ordea, barauak eginez liskar haiek neurri batean arintzea lortu zuen, 1948an fanatiko hindu batek hil zuen arte.

70eko hamarkadaren hasieran, krisi ekonomiko handi batek larriki eragin zuen Indiako ekonomian, petrolio-inportazioetan oinarritutako ekonomia hartan. Krisiak eta esterilizazio masiboaren kanpainen aurrean herritarrek erakutsi zuten erresistentzia eraginda, Indira Gandhiren gobernuak larrialdi-egoeran jarri zuen Estatu 1975ean, eta zentsura ezarri zuen prentsan. Indira Nehruren alabak 1966an hartu zuen lehen ministroaren kargua, haren aita hil zenean.



Indira Gandhiren gobernuak Indiako Kongresuko Partiduak betidanik izan zuen joera alde batera utzi zuen (Gandhik herrialdearen independentzia eskatzean aldarrikatzen zituen ekimenak babesten zituen), eta Munduko Bankuaren irizpide ekonomikoak onartu zituen. Erabaki hori zela eta, herritarren babesa galdu zuen, eta gainera, ez zuen enpresa-sektoreen erabateko babesa lortu (bereziki, atzeritarren kapitalarekin lotutakoena), haiek are eta kontzesio handiagoak eskatzen baitzituzten. 1977ko hauteskundeetan, Kongresuko Alderdiak porrot egin zuen, nabarmen.

Indira Gandhi 1980an itzuli zen boterera. Haren agintaldian, boterearen kontzentrazioa eta estatuko burokrazia- eta ustelkeria-salaketei aurre egin beharra izan ziren nagusi; arrazoi horien ondorioz, beraz, Indiraren irudia okertuz joan zen. 1984an, sikheko kide batzuek hil zuten. Kide horiek talde paramilitar hinduen bereizi gabeko errebantxismoaren biktima izan ziren. Rajiv Indiraren semea berehala proposatu zuten lehen ministroaren kargua betetzeko eta Kongresuko Alderdiko buru izendatzeko.

Indiaren eta Pakistanen arteko tentsioak areagotu egin ziren 1990ean. Azaroan, gaiztotu egin ziren hinduen eta musulmanen arteko liskarrak, eta aldi berean, krisi ekonomikoa areagotu zen. Berrito ere parlamenturako hauteskundeak egin zituzten, 1991. urtean. Ordea, hauek bertan behera gelditu ziren, Rajiv Gandhi erail baitzuten Tamil askapen-mugimenduko kideek egindako atentatu batean. Kongresuko Alderdiak gehiengoa lortu zuen, berrito ere.

Geroztik, 1992an hasitako ekonomiaren liberalizazio-prozesuan sakondu da, herritarren ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideen kaltetan. Estatuak osasun-arloan, hezkuntzan eta energia elektrikoan duen eskumena desagertzen hasi da, enpresa pribatuen mesederako. Egoera bereziki larria da urari dagokionez; baliabide hori, tradizioz, komunitatearen esku egon baita, lurraldearen heren batek lehorre-arrisku handia duen herrialdean.

Ekonomia-erreformek hainbat sektoreren kexak eragin zituzten, batez ere, nekazariarenak. Erresistentzia handia izan zen ongarriak eta haziak merkaturatzeko interesa zuten enpresa multinazionalen aurka. Kapitalaren aldeko nekazaritza intentsiboaren «iraultza berdearen» baitan, 1960 eta 1970 arteko hamarkadan, Munduko Bankuak mailegu handiak eman zituen genetiki eraldatutako haziak erosteko, eta Gobernuak, aldi berean, diru-laguntzak eman zizkien nekazariari. Gerora, Gobernuak erabaki zuen diru-laguntza horiek kentzea, Munduko Bankuaren irizpideen arabera. Karnataka estatuko nekazariaren elkarrekin gidatu zuen landa-protesta, eta 1991tik, konpainia multinazionalen aurkako zuzeneko ekintzak egin zituen.

1999. urte aldera, liskar armatuak izan ziren berrito Pakistanekin. Mila pertsona inguru hil ziren liskar haietan. Human Right Watch nazioarteko erakundeak gogor salatu zituen mugaren bi aldeetan bi gobernuen funtzionarioek egin zituzten giza eskubideen urraketa larriak. Indiako segurtasun-indarrei exekuzio ugari, bortxaketak eta torturak egin izana leporatu zieten.



Urrian, Kongresuko Alderdiaren oposizioko alderdia, BJP (Bharatiya Janata Party), Gobernuan zen berrito, baina legegintzako aukien erdiak baino gehiago bi alderdi nazionalen kontroletik kanpo geratu ziren.

2002ko otsailean, musulmanen aurkako indarkeria-oldarraldia izan zen, hiru hilabetez iraun zuena, eta azkenean, Gujarat estatua irabazi zuten. Bi mila lagun baino gehiago erail zituzten, eta bereziki krudela izan zen emakumeenganako jokabidea. Amnistia Internazionalaren txosten baten arabera, Gobernuak eta Estatuaren poliziek ez zituzten hartu zibilak babesteko neurriak; are gehiago, erasotzaileekin elkar hartuta jokatu zuten. Brasil, Alemania eta Japoniarekin batera, Indiak talde bat osatu zuen 2004ko irailean, NBeri presioa egiteko, erakunde horretako Segurtasun Kontseiluko kide iraunkor ziren aldetik beren aldarrikapenak bultzatzen.

Urte bereko abenduan, hegoaldeko kostako 2.000 km-tik gora urak hartu zituen Tamil Nadu, Andhra Pradesh eta Kerala estatuetan, Hegoaldeko Asian eragin zuen itsasikara handi (tsunami) baten ondorioz. Indonesiaren atzetik, India izan zen ondorio handienak izan zituen herrialdea. Zifra ofizialen arabera, zazpi mila hildako baino gehiago izan ziren, eta 130 mila pertsonatik gora etxerik gabe gelditu ziren.



5.2 ZIFRAK

India hiru eskualde handitan dago banatuta: Himalaia, iparraldeko mugan hedatzen dena; Gangesen iparraldeko lautada, lur emankorra eta oso populazio handikoa; eta Dekan goi-ordokia, erdialdean. Himalaia mendikateak iparraldeko haize hotzak geldiarazten ditu. Klima montzoiek baldintzatzen dute: epela eta idorra da urteko zortzi hilabeteetan, eta udan, gogotik egiten du euria.

Hiriburua: Nueva Delhi

Azalera: 3.287.260 km²

Populazioa: 1.224.614.000

Hizkuntzak: 2007ko zuzenketa baten ondotik, Konstituzioak 22 hizkuntza onartzen ditu: assamera, bengalera, bodoera, kaxmirera, dogribera, guyaratiera, hindia, kannadera, konkanera, maithilia, malayamera, manipuria, maratiera, oriya, penjabia, sanskritoa, santalera, sindhia, tamilera, telugua eta urdua. Hindiak du hizkuntza ofizialaren kategoria, eta ingelesa ere halakotzat hartzen da.

Moneta: Indiako errupia (kanbio-tasa ofiziala: 100 errupia = 1,60 €, 2011-7-13an).

Estatu-egitura: errepublika federala (28 estatu eta Batasuneko 7 lurralde).

Gobernatze-sistema: demokrazia parlamentarioa.

Estatuburua: Pranab Mukherjee

Giza garapenaren indizeari buruzko datu garrantzitsu batzuk

Giza Garapenaren Indizea (GGI) giza garapenari buruzko indizea da, herrialdekakoa, Nazio Batuen Garapen Programaren (NBGP) bidez egina. Estatistikako gizarte-adierazle bat du oinarri, hiru parametroz osatua: bizitza luze eta osasungarria, hezkuntza eta bizi-maila duina.


GGI Pakistango Mahbub ul Haq ekonomialariaren ekimenez sortu zen herrialdeak sailkatzeko, hainbat arlotan oro har erabiltzen ziren aldagaiak ez beste batzuk erabiliz: ekonomian (BPG, merkataritzako balantza, energia-kontsumoa, langabezia, etab.), hezkuntzan (alfabetizazio-indizea, matrikulatutako haur-kopurua haien hezkuntza-mailaren arabera, etab.), osasun-arloan (jaiotza-tasa, bizi-itxaropena, etab.) edota beste arlo batzuetan (gastu militarra). GGiren xedea da aldagai horiek neurtzea indize konposatu baten bidez, hiru alderdi horietan sinoptikoki erlazionatzen diren adierazleak erabiliz.

GGI kontzeptuaren sorrerari eta NBGPk kontzeptu horri emandako erabilerari buruzko historia ezagutzeko, oso baliagarria da liburu hau: El poder de las Ideas. Claves para una historia intelectual de las Naciones Unidas (The power of UN ideas. Lessons from their first 60 years. The United Nations intellectual history project) Richard Jolly eta beste batzuk (Catarata argitaletxea, Madril 2007).

1990. urtetik kalkulatu dute, Nazio Batuen Garapen Programaren (NBGP) bidez, 1990. urtean Mahbub ul Haq pakistandar ekonomialariak egindako ikerkuntza-lanari jarraiki. Neurri handi batean, Amartya Sen ekonomialariak landutako ideietan oinarritzen da.

Segidan, Indiako GGiren parametroak adierazi ditugu:

Sailkapena GGiren arabera	Giza Garapenaren Indizea (GGI)	Bizi-itxaropena jaiotzean	Eskolatutako urteen batezbestekoa	Eskolatuta egotea nahi den urteak
138	0,544	65,8	4,4	10,7





GUJARAT

- HIRIBURUA: GANDHINAGAR
- HIZKUNTZA OFIZIALAK: GUJARATERA ETA INGELESA
- AZALERA: 196.000 KM2
- POPULAZIOA (2011): 60.383.628 BIZTANLE

5.3. KASTEN SISTEMA

Indiako ezaugarri sozioekonomiko eta demografiko nagusietako bat da gizarte-mailaketa zurruna, kasten sistema bidezkoa. Gizartearen banaketa horrek herrialdeko biztanleria hinduari eragiten dio (biztanle guztien %80ri, hots 800 milioi pertsona ingururi), eta ariarrek herrialdea menderatu ondoren ezarritako gizarte-antolamenduan du jatorria (K.a. 1500. urtean, gutxi gorabehera); lau avarna (literalki, koloreak) edo kastatan banatzen zen ustez: brahamanak, kshatriyak, vaishyak eta shudrak.

Kasta bakoitzak jarduera ekonomiko espezifiko batzuekin du lotura; hala, brahamanek dute herrialdeko botere ekonomiko, politiko eta erlijioso handiena, eta atzetik dituzte, hurrenez hurren, beste kastak. Lau kasta nagusi horiek, halaber, ehunka azpikastatan banatzen dira, haiek ere hierarkikoki ordenatuak. Berraragiztatzea da kasta batetik bestera pasatzeko bide bakarra;



Indiako ezaugarri sozioekonomiko eta demografiko nagusietako bat da gizarte-mailaketa zurruna, kasten sistema bidezkoa.



Dr. Bhimrao Ramji Ambedkar

beraz, kasten arteko ezkontzak, bai eta azpikasten artekoak ere, debekatuta daude. Kasta-sistematik kanpo dagoen populazio hinduari (avarnak/dalitak) *ukiezin* esaten zaie, haien kondizio soziala dela-eta ez-purutzat hartzen baitituzte (purutasun-kontzeptua funtsezkoa da sistema horretan). Horregatik, lan gogorrenak eta laidogarrienak egin behar izan dituzte, eta beste kastetatik baztertuta bizi dira, hitzez hitz; hau da, beste hiri-kokalekuetatik baztertutako auzoetan bizitzera behartu dituzte, beren putzu propioak erabiltzera, etab.

Indiako konstituzioan (hain zuzen ere, Ambedkar doktore ukiezinak idatzitakoan), arrazagatiko diskriminazio oro kentzen saiatu ziren, diskriminazio positiboan oinarritutako sistema bat sortuz eta hainbat taldek aukera sozioekonomikoak izatea bermatuz, hots: dalitek (literalki, "hautsiak": ordutik ukiezinak izendatzeko erabiltzen dena), adivasiek (tribuen taldeak: ez dira kasten sisteman sartzen, ez baitute hinduismoa praktikatzeko) eta beheko kastetako kideek. Dalitak 160 milioi inguru dira. Indiako konstituzioak eta legeek ematen dizkien bermeak direla-eta haien egoera hobetu den arren, oraindik diskriminazio-egoera handien biktimak dira, eta haien oinarritzko eskubideak urratzen jarraitzen dute, landa-eremuetan, bereziki; leku horietan, oraindik, esklabotzaren fenomenoarekin jarraitzen dute.

Arrazakeriaren Aurkako Munduko Konferentzian (Durban, 2001eko abuztua-iraila, (<http://www.un.org/spanish/CMCR/>), GKEak eta gizarte-eragileak kasten sistema diskriminazio-modu onartezintzat sartzen saiatu ziren. Brahamanek menderatutako

Indiako gobernuak egindako presioen ondoren, daliten arazoa aipatu baino ez zen egin azken adierazpenean; halere, arazo larri honen inguruan nazioarteko iritziarengan arreta piztea lortu zen behintzat.



6. LEGEDIA

GUTXIENGOEN ESKUBIDEAK ETA KUOTAK

1950. urtean promulgatu zuten Indiako Konstituzioan, hasiera-hasieratik xedatu ziren gutxiengoaren eskubideak, eta kuoten printzipioa ezarri zen kolektibo baztertuenen mesederako. Kastak indargabetu ez badira ere, ukiezinak baztertzea debekatuta dago. Konstituzioaren III. atalak, oinarritzko eskubideei buruzkoak, aniztasun demokratikoaren printzipio nagusiak berresten ditu: "Estatuak ez du bereizketarik egingo herritarren artean, gizon nahiz emakume izan, haien erlijioa, arraza, kasta, generoa edo jaioterria edozein izanik ere (15-1. art.). Indiako lurraldean bizi den herritar orok, gizon nahiz emakume izan, hizkuntza bat, alfabeto bat edo kultura bat badute, hura gordetzeko eskubidea izango dute" (29-1. art.). "Erljio-gutxiengo nahiz hizkuntza-gutxiengo guztiek eskubidea izango dute berek hautatutako hezkuntza-erakundeak ezartzeko eta administratzeko" (30-1. art.).

Hezkuntzari buruzko legeak

Indiako konstituzioak doako hezkuntza arautzen du 14 urte bitarteko haur guztientzat, eta hezkuntzaren erantzukizuna Gobernu Zentralaren eta estatuen artean banatzen du. Indiako Magna Cartan, halaber, gutxiengoaren eta talde baztertuenen hezkuntzari buruzko atal bat dago. Gerora egin diren politika guztiak bi kontzeptu hauen inguruan zehaztu dira: derrigorrezko hezkuntza, batetik, eta populazioaren ahalik eta zatirik handienak hezkuntzarako eskubidea izatea, bestetik. Dena den, politika horiek aplikatzeko dauden zailtasunak direla eta, lege askok helburu nagusi bera finkatu behar izan dute, egiaz tresna eraginkorra izatea lortu arte.

1986ko Hezkuntza Politika Nazionalak derrigorrezko Lehen Hezkuntza jarri zuen doan, aldaketa gauzatzeko baliabidetzat. Horrez gain, hiru hizkuntzako irakaskuntza bultzatu zuen, aukera-berdintasuna sustatuko zuena, eta ikasketa zientifikoak gizarte-arlokoen gainetik jarriko zituen.

1990ean, **Jomtien (Tailandia) Hezkuntza Denentzat egitasmoari buruzko Mundu Konferentziaren** eraginez, Indiako gobernuak kanpoko laguntza onartu zuen Lehen Hezkuntza unibertsala sustatzeko. Erabaki haren ondorioz Indiako gobernuak estatutako lehen proiektu handia **Lehen Hezkuntzako Programa Barrutika (LHPB)** izan zen (**1994. urtean**); proiektu haren bidez, hezkuntza sustatu zuten emakumeen alfabetizazio-tasak txikiak ziren Indiako barrutien ia erdian. Programa horren bidez, harreman dinamikoak sortu ziren Gobernuaren eta gizarte zibileko erakundearen artean. Osasuna hobetzeko eta haurrak eskolara joateko **Nutrizio Programa** sustatzearekin batera (1995. eta 2001. urteetan), Indiako gobernuak anbizio handiko plana jarri zuen abian: **Sarva Shiksha Abhiyan (SSA)**. Plan horren bidez, 2010erako Lehen Hezkuntza unibertsala sustatu nahi zen Indiako haur guztientzat; gainera, malgutasun handia zuen, nork bere estrategiak aplikatzeko, testuinguru bakoitzaren arabera.

2002an, Konstituzioaren 86. zuzenketaren ondotik, beste etapa bat hasi zen; etapa horretan, hezkuntza funtsezko eskubidetat hartu zen, eta 21.A artikuluan, Estatuak eskubide hura betetzeko zuen obligazioa xedatu zen.

Hezkuntza unibertsala lortzeko azken saiakeran, **Hezkuntzarako Eskubidearen Legea** (2009) onartu zen. Arau hartan, 14 urte arte oinarritzko hezkuntza jasotzeko eskubidea berretsi zen, doakoa eta derrigorrezkoa izango zena. Irizpide hura ardatz nagusi bihurtu zen, kalitatezko Lehen Hezkuntza lortzeko, eta Estatuak familiekin eta komunitateekin elkarlanean jarduteko. Lehen aldiz hartu ziren hiru eragile horiek oinarritzko partaidetzat, Indiako Lehen Hezkuntzaren zikloa osatzea lortzeko bidean. Legeak arautzen zuenez, eskolek Eskola Kudeaketarako Batzordeak eratu behar zituzten, toki-erakundeetako funtzionarioez, gurasoez, tutoreez eta irakasleez osatuta. Lege horrek, gainera, berdintasuna eta diskriminaziorik eza printzipioetan oinarritutako hezkuntza-eskubidearen alde egiten zuen.



Indiako konstituzioak doako hezkuntza arautzen du 14 bitarteko haur guztientzat, eta hezkuntzaren erantzukizuna Gobernu Zentralaren eta estatuen artean bantzen du.

* Fundación Vicente Ferrer erakundearen webgune ofizialetik eratorritako informazioa. www.fundacionvicenteferrer.org



7. IBILBIDEAK

7.1. NESKA

Ondorengoak gizonezkoak izateak harrotasuna eragiten du kultura askotan. Agian, antzinako garaien herentziazat hartu behar da joera hori, biziraupena neurri handi batean gizonen indarraren mende zegoen garai haien ondorioztat. Baina arbasoen oroimen horrek oso eragin handia du emakumeengan, egun oraindik gizonezkoei baino balio gutxiago ematen baitaie, eta bigarren mailako hiritartzat hartzen baitituzte: herrialde askotan, gizonezkoen mende jarraitzen dute, eta ez dute ez hezkuntzarako eskubiderik, ez ondasunik izateko eskubiderik ere. NBERen datuen arabera, egun, emakumeak dira planetako pertsona behartsuen %70.

Indian, neskatoak emakume egiten direnean, ezkondu eta beren gurasoak uzten dituzte; mutilek, aldiz, familia-etxean jarraitzen dute, gurasoak zaintzeko. Horregatik, jaiotzen diren unetik beretik, neskatoei ez diete hainbesteko arreta jartzen (aurrerago azalduko dugu). Baina ez hori bakarrik.

Horrez gain, heriotza-tasa askoz ere handiagoa da emakumeen artean (ohiz kanpoko neurrian), eta sarritan, haurrak eskulanerako esplotatzen dituztenei saltzen dizkiete, baita prostituzio-sareei ere.

Indian, emakumeak jaio aurretik daude sexualki diskriminatuta, eta bigarren mailakotzat hartzen dituzte, bai familian bai gizartean.

Familia askotan, neskato bat jaiotzeak ez du alaitasun handirik ekartzen; alderantziz, familiakoak eta lagunak triste agertzen dira, eta haurraren gurasoez errukitzen dira, mutikoa laster iritsiko dela opatuz.

Mende askotan, Asia kontinentean (batez ere, Indian eta Txinan) ohikoa izan da neskatoak hiltzea, jaio eta berehala, hain zuzen. 80ko hamarkadatik hona, ordea, haur-hilketak beste dimentsio bat hartu du, eta hiltzeko modua aldatu egin da; orain, haurra jaio aurretik egiten da, ekografiek izan duten zabalkundearen bidez erraz jakin baitaiteke fetuaren sexua. Horrenbestez, milioika fetu femenino urtero hiltzen dituzte urtero kontinente horretan; fenomeno horri fetizidio esaten diote Indiako GKEek.

Hala ere, ezin da esan neskatoak jaio aurretik hiltzeko teknika horrek Indiako biztanleria guztiarengan eragiten duenik. Egiaz, oso ohitura patriarkalak dituzten herritarrengana mugatzen da, edota gizarte-ingurune jakin batzuetara, hirietakoak nahiz landa-eremuetakoak. Gainera, pertsona askok uste dutenaren kontra, egun ez dira pertsona behartsuenek neskak gehien baztertzen dituztenak; erdi-mailako gizarte-talde batzuetan dago hedatuen joera hori.

Horrenbestez, neskatoek elikadura txarragoa izaten dute haurtzarotik, haien osasuna gutxiago zaintzen da, eta ez dute jasotzen beren anaiek besteko heziketa. Gazte-gaztetatik eskatzen zaie familiari diruz laguntzeko, eta beraz, eskola utzi behar izaten dute. Txikitatik laguntzen dute etxeko lanetan (egurra jaso, ura ekarri, abereentzat belarra bildu, janaria prestatu...), eta anai-arreba txikiagoak zaintzeaz arduratzen dira.

Alabengan egindako inbertsio ekonomiko eta afektibo guztiak ez dio inoiz norberaren familiari onurarik eragiten, ezkontzean haiekiko lotura oro galtzen baitute. Horrez gain, ezin da ahaztu alaben dotea (dowry) dela-eta gurasoen





egin behar izaten duten ahalegin ekonomikoa; izan ere, legez debekatuta egon arren, gero eta orokortuago dago, baita musulmanen eta kristauen artean ere.



7.2 MUTILA

Testuinguruan aipatu bezala, Indian hindua da erlijio nagusia, eta erlijio horretan, mutiko bat jaiotzen denean, pozarren ospatzen dute. Jaiotza hori dela eta, festa handi bat egiten dute, eta mutikoa jaiotzen denetik astebetera, erlijio-zeremonia bat egiten da. Senideak eta lagunak festa batean elkartzen dira, eta gozokiak, pastelak eta opariak ekartzen dituzte.

Kultura hinduan, semeari soilik onartzen zaio aitaren errausketa-errituak egiteko eskubidea, hileta-metari su ematekoa, esaterako; izan ere, bestela, hildakoaren arima ez da paradisura heltzen. Agindu bat da erritu horiek semeak egitea; beste gizon batek eginez gero (adibidez, suhiak edo ilobak), ondorioak izango ditu arimaren bidaian, eta horrekin batera, baita hildakoaren karman ere.

Horrez gain, haurrak (hobe esanda, semeak) dira familiaren euskarri, alabak gurasoen etxetik joaten baitira ezkontzean. Semeak arduratuko dira etxeaz eta lurrez, eta egunen batean horiek

ordezkatzeko dituzte beren aitak soroko lanetan; halaber, haiek arduratuko dira gurasoak zaintzeaz, zahartzarora iristen direnean. Semeak, etorkizuneko inbertsio direnez, mimatu egin behar dira, ongi elikatu eta hezkuntza egokia eman.

Gainera, mundura seme bat ekartzeak ondorengoak izango direla bermatzen du: aitaren izena etorkizuneko belaunaldietara transmitituko da. Horrenbestez, semeak izatea gizarte-betebehar bat izateaz gain, familiari ohorea ematen dion faktore bat da

7.3 ESPIRITUALTASUNA ETA KULTURA-EZ AUGARRIAK

A) ERLIJIO-ANIZTASUNA

Indiako estatua, ofizialki, laikoa da, eta kultu-askatasuna bultzatzen du.

2001eko erroldak ematen du Indiako erlijioei buruzko datuen azken egoeraren berri; urte hartan, 1.000 milioi biztanle zeuden Indian (1.200 milioi 2011ko erroldan, baina oraindik ez dira argitaratu erlijio eta hizkuntzei buruzko datuak). Datu haien arabera, hinduak dira gehienak (%80,5), eta bigarren lekuan daude musulmanak (%13,4); horien atzetik, talde txikiagoak daude: kristauak (%2,3), sikhak (%1,9), budistak (%0,8), jainistak (%0,4) eta beste batzuk (%0,7; gehienak animistak dira).

Beraz, ofizialki laikoa izan arren, erlijioa bizitzeko modu bat da Indian. Indiako pertsona gehienentzat, erlijioak eragina du bizitzako alderdi guztietan: eguneroko egiteko arruntetan, hezkuntzan, politikan...

B) ERLIJIO NAGUSIA: HINDUISMOA

* Hizkuntza

Indiaren izen ofiziala Bharat da. Herrialde hori 25 estatuk eta 7 lurralde-unitatek osatzen dute. Bertan, mila milioitik gora pertsona bizi dira, eta 18 hizkuntza ofizialetan hitz egiten dute (hizkuntza horietatik guztietatik, hindia da hedatuena); horrez gain, 1.000 dialekto baino gehiago daude. Ingelesa ere asko erabiltzen dute, administrazio-arrazoiak eta herrialdearen historia direla tarteko. .

* Gastronomía

Indiako gastronomia askotarikoa da oso; hain zuzen ere, hainbat mendetan gertatutako kolonizazioetan aberastutako kultura-aniztasunaren ondorio da.





Hau da, kolonoek ekarritako sukaldaritza-ohitura desberdinak bertan txertatuz eta nahasiz joan ziren, eta azkenean, egun ezagunak zaizkigun joeren multzoa sortu zen. Indiako zapore gehienak lortzeko, espezie ugari erabiltzen dituzte, eta barazkien aukera handia da. Joera orokor horren baitan, tokian tokiko estiloen aukera zabala da oso.

Indiako sukaldaritzan gehien erabiltzen diren osagaiak hauek dira: arroza, atta, ogia egiteko erabiltzen duten ogi-irin berezia, eta lekaleen aukera zabala, gutxienez bost dozenakoa. Garrantzitsuenak chana (txitxirioak, chícharo) da, bai eta toor (Indiako txitxirioak), urada (dilista beltza) eta munga (soja berdea) ere.

* Ohiturak

Marka kopetan.

Indian betidanik izan da ohitura forma eta helburu desberdineko hainbat zeinu eta ikur kopetan marraztea.

Antzinako ohitura da errautsaz kopetan markak egitea. Marka horiek egiteko, besteak beste, *gopichandana* kolorea erabil daiteke.

Halaber, oso ohikoa da kumkuma izeneko pasta bermiloia erabiltzea, *kurkuma*, alunbrea, iodoa, kanforra eta beste produktu batzuk nahasiz lortzen dena.

Produktu horietako edozeinekin egin daiteke *tilaka*, kopetan egiten den marka, erlijiotasuna edo kasta adierazten duena.

Tilaka bekainen artean egiten da, ezagutza bertan dagoela uste baita. Aszetak bertan kontzentratzen dira, beren botereak esnatzeko.

Erljio-marka horiez gain, oso ohikoa da Indiako emakumeen artean bindiarekin apaintzea; biribiltxo bermiloi bat da, eta emakume ezkonduak egiten dute, beren senarrak babestuko dituen ustez.



* Errituak.



Bataioa.

Hinduismoan, izenari garrantzi handiagoa ematen zaio beste kultura batzuetan baino, erlijiotasunarekin duen lotura dela eta.

Erljio-lotura egiten da, jaioberriari jainko baten edo babesaren eskatzen zaio santu baten izena jarritz. Haurra jaiotzen den hilabetea zaintzen duen jainkoaren izena izan daiteke, edota jaioberriaren senideek gehien miresten duten jainkoarena.

Beste berezitasun bat da kastak izenean duen eragin soziala; izan ere, bere kasta iradokitzen duten ezaugarriekin lotutako izenak jartzen dizkiete. Bataioaren ospakizun-zeremonia (*nâmakarana*) haurraren jaiotzaren hamargarren egunetik hasi eta urtea bete baino lehen egiten da, zona bakoitzaren arabera.

Errituarekin hasteko, etxea arazten da, jaiotzako lohitasunetatik garbitzeko. Haurra arropa garbiekin biltzen da, eta amak aitari pasatzen dio.

Su sakratuaren aurrean egiten da jainkoen babesaren lortzeko zeremonia, eta horretarako, frutak, esnea, gurina, gozokiak eta loreak eskaintzen zaizkio. Formula mistikoak erabiltzen dira, eta aukeratutako izenez esaten dio aitak haurri.

Garrantzi handiko ekitaldi soziala da, eta halabeharrez gonbidatu behar dira familiako kideak eta gertuko pertsona guztiak; era berean, derrigorrezkoa da opariak egitea, brahmanei elikagaiak ematea, eta jaioberriaren izenean karitatezko obrak egitea.

Ezkontzak

Indiako ezkontzak tradizio handiko ekitaldiak dira, haurrak txikiak direnetik hasten baitira senideak beren seme-alabentzat bikotea bilatzen.

Halaber, oso garrantzitsua da ezkontzeko egun perfektua aukeratzea.



Ezkontza-egunean, edota egun bat lehenago, senargaiaren senideek arropa, bitxiak eta opariak eramaten dituzte emaztegaiaren etxera, hark ezkontza-egunean jantzeko. Emaztegaiaren arropa oso berezia da (gorria eta urre-koloreko brodatuak), eta ez du zeremonia osoan aurpegia erakusten. Ezkontza emaztegaiaren etxean ospatzen da, eta senargaia zaldi zuri baten gainean iristen da hara; ezpata eraman ohi du, eta pertsona ugari izaten ditu ondoan. Senargaiak lepoko bat jartzen dio emaztegaiari, ezkonbizitzan leial jokatu duela adierazteko.

Otoitz egitean, senargaiaren aitak edo nebak lorearen petalo-orriak botatzen dizkio bikoteari. Horrez gain, sinesmen baten arabera, oso ona da ezkongaien buru gainetik koko bat biribilak eginez pasatzea, hiru aldiz.

Erraustea.

Hinduen hileta-errituan, gorpua erretzean dituzte. Haien sinesmenaren arabera, suak gorpua erretzean bizitzaz gaindi dagoen zerbait bihurtzen du.

Salbuespenak egiten dira haur txiki-txikiekin eta santutzat hartzen diren aszentekin.

Hiletek hamar egun irauten dute, eta errausketa apaiz liturgiaburu batek eta familiaburuak edota hildakoaren seme nagusiak egiten dute. Hilotza garbitu, sandalo-pastaz igurtzi eta lorez betetako hil-oihal batez biltzen dute, eta gero, sorbalda gainean eramaten dute erraustuko duten lekura arte; han, egur usaintsuen multzo baten gainean jartzen dute.

Gizarte-talde gehienetan, gizonak soilik egoten dira hilotzaren ondoan. Zuriz jantzita eta dolua adierazteko ilea kaskamotz moztuta, seme nagusiak pizten du sua; izan ere, zeremonia hori eginez, erlijio-merezimendu handia lortuko duela uste da, eginkizun saihestezin bat betetzeaz gain.

Sinesmen horien arabera, hileta-erritu horiek gauzatuko dituen semerik ez izatea da zorigaitz handiena.

Behin sua pizten dutenean, denek ikusten dute nola erretzen den gorpua, guztiz erraustu arte. Ondoren, errautsak eta geldidutak daitezkeen hezur-zatiak biltzen dituzte, eta ibaiko uretara botatzen dituzte.

Errausketak herriaren kanpoaldean egin ohi dira, errautsak sakabanatu ohi diren ibaietatik gertu.

Indian, zuria da dolua adierazteko kolorea, eta denbora-aldi desberdinak irauten ditu. Egundak seinatuak hildakoaren arimaren aldeko eskaintzak egiten dira; eskaintza horien ondorioz, heriotzak etxean eragindako lohasunetik libratzen da familia.

Desberdintasun handiak daude Indiako kultura orokortuaren (kultura hindua, biztanleriaren %80) eta adivasien kulturaren artean, azken horiek ez baitaude kasten sisteman antolatuta. Adivasien kultura hori dagokion ibilbidean aztertuko dugu.

*** Dantza Indian**

Indiako dantza antzinako zibilizazio baten adierazpenetako bat da, eta gizakiaren bilaketa ekartzen du gogora, inguruko munduarekin eta gizakiaren garapenarekin loturiko bilaketa. Ezaugarri hori ez dagokio dantzari bakarrik, arte guztien ezaugarria da: biziaren zentzu filosofikoaren bilaketa aztertzea, hain zuzen.

Indian, dantzetan erabiltzen diren jantziak landa-eremuetako jantzi tradizionalak dira. Eskualdeen arteko desberdintasunak oso handiak dira, eta jantzi mota ugari daude. Basamortu-eremuetako jatorrizko jantziak oso distiratsuak dira. Eskualde berdeetako jatorrizko jantziek, berriz, kolore lauak eta argiak dituzte.

Emakumeen jantzi nagusiak sariak (saree) —modu askotan jantzen dituzte— eta elastiko zabalak dira. Gizonak bularra agerian eramaten dute edota txalekoak eta praka zorrotzak jantzen dituzte.



7.4 HEZKUNTZA

Hezkuntzarako eskubidea

Orain dela 50 urte izenpetu zuten Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, eta bertan, oinarritzko giza eskubidetzat hartu zen hezkuntza-eskubidea. Hala ere, egun oraindik bestelako egoera aurkitzen dugu:

- Munduan, 123 milioi haurrek ez dute hezkuntzarako aukerarik; horietatik %60 neskak dira.
- Helduen artean, hiru pertsonatik bat analfabetoa da munduan, eta pertsona analfabeto horien bi heren emakumeak dira.



HEZKUNTZARAKO zailtasunak GUJERATen

Adivasiak komunitateak kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera oztopatzen duten hainbat faktore daude.

“Botere-taldeak” duten interesa adivasiak hezkuntzarako aukerarik izan ez dezaten.

Indiako gizartean boterea duten pertsona askok eta askok ez dute nahi adivasiak hezkuntza-prozesuetan esku hartzerik; izan ere, biztanleria-sektore hori eskulan merkea eta otzana da industrietarako eta nekazaritza-ustiapen handietarako, eta beraz, ez dute nahi hezkuntzari esker egoera horretatik ateratzea eta aurrera egitea. Talde horiek dituzten interesez gain, Gobernuaren hezkuntza-sistemak ez du inolaz ere bultzatzen eta babesten adivasiak hezkuntza-aukera.



Familia analfabetoak.

Ezjakintasunaren gupil zoroa sortzen da; izan ere, haur adivasiak gurasoak analfabetoak dira. Hau da, familiek ez diote behar besteko balioa ematen beren seme-alabek hezkuntza-aukera izateari, eta beraz, haien garapenerako eta etorkizunerako tresnarik onenaz gabetzen dituzte, nahita edo nahi gabe. Joera hori are larriagoa da nesken eskolaratzeari dagokionez, kulturalki etxeko lanez arduratzea baita haien egitekoa.

Distantzia handiak.

Ikasleek distantzia handiak egin behar dituzte egunero eskolara joan ahal izateko, adivasiak herriak eta herrixkak eremu hartako mendien artean sakabanatuta baitaude; horrenbestez, distantzia hori beste arrazoi bat da etxean beste lan batzuk egiten gelditzeko. Aurrekoetan bezala, joera hori are nabarmenagoa da nesken artean.

Hizkuntza-arazoak.

Adivasiak hizkuntza eta dialekto propioak dituzte. Kultura-ahulkerak hori, ordea, oztopo eta bazterketa-iturri bihurtzen da askotan; izan ere, eskolara iristean lekuz kanpo eta baztertuta sentitzen dira, irakaskuntza gujarateraz eta ingelesez egiten baita.

Adivasiak hezkuntza-arloan dituzten zailtasun espezifiko horiei eta beste zailtasun orokor batzuei erantzuteko, **ALBOANek, Hezkuntza Denentzat egitasmoaren bitartez, barnetegien eta eskolen sare oso bat du**, neska-mutikoen hezkuntza jasotzeko aukera izan dezaten, nork bere hizkuntzan, gujarateraz eta ingelesez.

www.alboan.org/cet/educacion-para-todos.html

7.5 ADIVASIAK

HERRI INDIGENAK

Nazio Batuak geroz eta gehiago arduratzen dira herri indigenen auziaz, munduan egoera ahulenean dauden taldeetatik hartzen baitira. Badira herri indigenei esateko beste modu batzuk ere: «lehen herriak», tribuen herriak, aborigenak eta autoktonoak. Gutxienez, 5.000 talde indigena daude, bost kontinenteetako 70 herrialdetan bizi diren 370 bat milioi pertsonaz osatuta. Erabakitze-prozesuetatik kanpo, asko eta asko baztertu, esplotatu eta indarrez hartu dituzte, eta beren eskubideak defendatzeko hitz egin dutenak errepresioa, torturak eta hilketak jasan behar izan dituzte. Jazarriak izateko beldurrez, asko errefuxiatu egin dira, eta zenbaitek beren identitatea ezkutatuta eta beren hizkuntza eta ohiturak baztertu behar izan dituzte.





Adivasiak Indiako indigenak edo aborigenak dira. Kasten sistematik kanpo daude, eta baztertu egiten dituzte, inolako kastatakoak ez diren hinduak (ukiezinak edota dalitak) bezala.

Betidanik bizi izan dira oihanean. Han bizi dira, han dibertitzen dira, bertan aurkitzen dituzte senda-belarrak, eta bertatik lortzen dituzte elikagaiak gosete garaian.

Animistak dira, eta horien erlijioan, oihanean agintzen duten espirituak goratzen dituzte, bai eta bertan bizi den oro ere.

Batez ere, juwarra (sorgoa) eta tuwarra (dhala) landatuz bizi dira, eta horrez gain, bufaloak hazten dituzte, esnea lortzeko. Kotoi-sailetan edota errepideak eraikitzen ere lan egiten dute; lan horiek egiten dituzte beren uztak bizirauteko nahikoak ez direnean.

Adivasiak batzarren bidezko egituratan antolatu izan dira beti. Lider eta lege propioak dituzte, baina gizon guztiek (eta zorionez, gero eta emakume gehiagok) hartzen dute parte herrixkari eragiten dioten gaietan. Adivasiaren batzar bidezko sistema historikoek egungo biltzarretan, kontseiluetan eta sozietateetan dute isla.



Tribuen edo adivasiaren talde ugari eta askotarikoak daude; herrialdeko zona bakoitzean (baita Gujarat estatuan ere), talde bat baino gehiago daude: vasavak, gamitak, bheesak, koknahak... Talde horiek guztiek hizkuntza, tradizio eta ohitura desberdinak dituzte.

Kanpotik hainbat eta hainbat eraso jasan arren, Gujaterako adivasiak, haien bizirauteko indarrari esker, hasiera-hasieratik asmatu dute beren mundu-ikuskerari eta bizitzari leial lotu zaizkien gizarteak sortzen, bai eta horiei eusten ere: hau da, izaki gorenaren borondate oneko zaintzapean; gizon, emakume eta haur guztiak baldintza berdinak dituztela; eta natura nahiz bertan dagoen oro errespetatuz.

Indiako adivasiaren tribuek uko egin zioten kastatan antolatutako sozietate brahmandarrean sartzeari; horregatik, Indiako gizarte nagusiak deabrutzat hartu zituzten, eta jazarri egin zituzten. Bestalde, adivasiaren kopuru handiak lortu du gaur egun arte bizirautea.

Bizirautea lortu dute, bai, baina milaka urtetan zehar, oihanetako soilguneetan bizi ziren aborigen adivasiak beren begiekin ikusi behar izan dute nola bota zituzten oihanak, beren betiko habitatak, eta gainera, ez bertan bizitzeko, bertako aberastasuna gaizki erabiltzeko baizik.

Oihanak ustiatzearekin lotuta, zenbait neurri ezarri ziren, baina egun, oraindik, ez dira behar bezala bete adivasiaren ustez. Dena den, Indiak independentzia lortu zuenean, adivasiak, lege berriak oinarri hartuta, gizon-emakume aske bihurtu ziren; egun, beraz, beren lursailak lantzen dituzte, modu iraunkorrean.

Oihaneko arazoa konpontzeke dago ordea. Adivasientzat, oihana beren antzinako habitata da, arbasoen aberria, haien gorpuak lurperatuta dauden lekua, haien sorrera-mitoen jatorria, erlijio-kulturako eremua, eta beren gogoaren iturri; horrez gain, bertan





biltzen dituzte senda-belarrak, eta oihana dute bizirauteko azken baliabide ere, montzoirik ez denean eta goseteak emakume, gizon eta haurrei erasaten dienean.

Estatuko gobernuntzat eta enpresentzat, bai eta enpresa pribatuentzat ere, oihanak eta bertako baliabideek beste esanahi bat dute: ikatza, burdina eta beste mineral batzuk eskuratzeko iturri dira; harrobi handiak dauden eremu; ureztatze-eremu handiak elikatzen dituzten urtegi handi; askotariko elektrizitate-zentralak dauden gunek; industria-enpresa handiak jartzeko espazio... Horren ondorioz, pertsona askok eta askok bizilekuz aldatu behar izan dute. Gehienak aborigen adibasiak dira.

Zehazki, Gujeraten, 55 milioi pertsona inguru bizi dira; horietatik %15, gutxi gorabehera, adibasien tribuetakoak dira.

Kantzer tropikotik gertu dagoenez, tenperaturak 10°C eta 45°C artekoak izaten dira; bestalde, montzoiak ekainetik irailera bitartean irausten du, eta gainerako hilabeteetan, ez da batere urik egoten. Hori oso garrantzitsua da; izan ere, nekazaritzan eta, neurri txikiagoan, abeltzaintzan jarduten dutenez, eurite-denboraldiak argi eta garbi zehazten du egutegia.



Berezko tradizioak

Bizitzaren etapan errituak

Hurrengo lerroetan, adibasien zenbait etapa-erritu aztertuko ditugu (jaiotza, ezkontza eta ehorzketa), bai eta gertaera horiek zer ezaugarri bereizgarri dituzten ere.

Jaiotza

Haurdunaldiaren azken egunetan, herrixkako emaginak askotan egiten dio bisita ama izango denari. Amaren sabelean haurtxoaren gorputza osatu duten buztinlari jainkotiarren laguntzailatzat hartzen da emagina. Emagina arduratzen da haurra erditzeko unea gidatzeaz, bai eta ama eta haurra garbitzeaz, eta azkenean, haurra amaren bularrean jartzeaz ere; horrez gain, emaginak zilbor-hestea eta plazenta gordetzen ditu, eta gauean, familiaren baratzako lur azpian gordetzen ditu, inork ez dakien leku batean.



Haurra erditzeko lekuari eta moduari dagokionez, honela egin ohi dute: lehenbizi, ama etxeko buztinezko lurzorua gainean etzaten da, arrozari mintza kentzen zaion lekuan; haurtxoak ere lurzorua gainean bertan hartzen du atsedean, eta une horretan, zilbor-hestea moztu eta berehala egin beharreko zereginak betetzen dituzte.

Erditzearen hurrengo bost egunetan, emagina amaren eta haurtxoaren ondoan egoten da, garbitu egiten ditu, eta haiek dituzten premiak betetzen ditu. Bosgarren egunean, jaioberriari izena jartzen zaio. Herritar denak etxe aurrean biltzen dira, iluntzean. Aleari azala kentzeko lekuaren ondoan, bost arroz-eskaintza jartzen dira, azukre-melazarekin nahasita, eta buztinlari jainkotiarrei hel egiten zaie. Haurtxoa osasuntsua izatea eskatzen da; mutikoa bada, ehiztari ona izatea, eta neska bada, frutak eta berdurak biltzen ona izatea, edota arrantzale ona.



Amaitzeko, neskatoari edo mutikoari izena jartzen zaio, eta bertan daudenei mahua likorea eta txitxirio txigortuak ematen zaizkie. Egun horretatik aurrera, haurtxoa adivasitzat hartzen da.

Ezkontza

Bizitzaren etapako erritu guztietan bezala, etxekoengandik banatzeak eta ezkonbizitzako egoera berrira sartzeak eragiten duen ziurgabetasuna baretzeko, hiru urrats hauei jarraitu behar zaie: odolkidetasun-azterketa egin, bikotea nahiz bi familiak elkar hobeto ezagutu, eta ezkontza antolatu.

Lehenengo urratsa intzesturik ez dela gertatuko bermatzeko egiten da; hau da, ohitura horren arabera, klan bereko bi pertsonak ezin dute inoiz ezkondu.

Bikotea eta familiak hobeto ezagutzeko, bisita ugari egiten dituzte elkarren etxeetara. Bisita horietan, ezkontza-gastuak nola ordaindu erabakitzen dute. Azkenik, familiak ados jartzen dira, eta ezkontza hitzartzen da, mahua likorraren “kopa” beretik trago bat edanez. Egun horretan bertan zehazten da ezkontza-eguna.

Zeremonia nagusia emaztegaiaren etxean ospatzen da. Ezkongaien herritarrek eta haien lagunak emaztegaiaren etxearen aurrean elkartzen dira ilunabarrean. Estera baten gainean, mahua likorez betetako murko bat jartzen da. Ezkongaei beren izenez esaten zaie, eta zutik egonarazten zaie, bata bestearen aurrean, likore-murko baten ondoan. Murkoaren beste aldean, likore-baso bat eskuan dutela, adinekoen talde bat jartzen da.

Ezkongaiei ezkontza hori benetan nahi duten adierazteko eskatzen zaie. Biek baietz erantzuten dutenean, adinekoek libazioa egiten dute (kopa batetik likore apur bat lurrera isurtzea; adivasiaren artean, beste erdia elizkizunburuak edaten du), eta gero, haietako batek adierazpen bat irakurtzen du.

Senar-emazteek ematen dieten kopa bateko edukia ezkontidearenekin nahasten dute, eta biek batera edaten dute. Gero, haiekin dauden gainerako pertsona guztiek ere gauza bera egiten dute: edan.

Bi familietako ordezkariak emaztearen etxean elkartzen dira, eta opariak eta ezkonbizitzan izango dituzten beste gastu batzuk hitzartzen dituzte. Gastuen zerrenda ozen irakurtzen dute, eta azukre-melaza bertaratutako guztien artean banatzen dute, arroz txigortuarekin batera. Horrela, amaitutzat ematen dute ezkontza-zeremonia.



Doteak bikote hinduengan eragiten dituen ondorio kaltegarriak direla eta (adibidez, fetizidioak, alabak ezkontzean doterik ordaindu behar ez izateko), nabarmendu behar da emaztegai adivasiek ez dietela doterik eramaten beren senargaien gurasoei. Guztiz kontrakoa gertatzen da; hau da, alaba senarraren etxera joatearen ondorioz etxeko lanetarako lan-eskuaren galtzen dutenez, emaztegaiaren gurasoei galera hori ordaintzeko modu bat dira opariak.

Ezkontzaren aurreko gauean, dantza tradizionalak dantzatzen dituzte, goizaldera arte. Egunean bertan, jada emazte bihurtu den ezkongai senarraren etxera eramaten dute, modu formal batean. Etxean sartzean, arroz betetako otzara baten gainean eserarazten dute, aleari azala kentzen zaion ukloan; senarra haren ondoan esertzen da, aulki baten gainean, eta biek jaten ematen diote elkarri (gozokiren bat edo), elkarrenganako mirabetza adieraziz. Horrela bukatzen dira ezkontza-errituak.

Arbasoen erreinura igarotzea

Erritu hau konplexuagoa da, eta hiru egun irauten du. Lur-ematearekin hasten da, eta ospakizun batekin amaitzen da; hildakoa arbasoekin elkartu dela uste dutenean, hain zuzen ere. Zeremoniak pertsona hil eta berehala hasten dira.

Bi ehorzle daude, gizonezkoa eta emakumezkoa, eta horiek, senideekin batera, hildakoaren gorpua prestatzen dute. Lehenbizi, jogurtaren eta kurkuma-hautsaren arteko nahaste bat jartzen diote, eta gero, ur beroaz garbitzen dute. Ondoren, arropa berriak jantzen dizkiote, eta sinbolikoki, jaten ematen diote. Amaitzeko, bere ohe gainean jartzen dute, bere objektu pertsonalekin.

Ehorzleak mintza kendu gabeko arrozaren poltsatxo bat, aizkora bat eta buztinezko ontzi bat prestatzen ditu; buztinezko ontzian, lastoz eta simaurrez egindako tea (suzi antzeko bat) bat jartzen dute. Tea horrek hildakoaren bizia adierazten du. Ehorzlea ibiltzen hasten da, eta



ohe gainean jarritako gorpuak atzetik jarraitzen dio. Tarteka, ehorzleak arroz apur bat zabaltzen du bidean, eta ohea aizkoraren atzealdearekin kolpatzen du; prozesioaren buruan doanak petardoak leherrarazten ditu. Ekintza horien bidez, hildakoaren gorpuaz jabetu nahi diren espiritu txarrak uxatzen dituzte.

Bide erdia egitean, atsedean txiki bat egiten dute, eta emakumeek gorpua agurtzen dute. Azken ondrea hilobiaren ondoan egiten da: "jateko eta edateko" ematen zaio hildakoari (mahua likorea), edota hildakoak gustuko zuen beste zerbaite eskaintzen zaio. Hildakoaren gorpua beste mihise batean biltzen da, eta mihisearen gainean teka-hostoak zabaltzen dira. Hilobiaren gainerako zatia lurrez, sasiz eta harriz (oso ikur garrantzitsua Gujaterako indigenentzat) estaltzen da. Hilobiaren gainean, hildakoaren ohea jartzen da, alderantziz, eta ohearen lau ertzetan, mintza kendu gabeko arroza botatzen da.

Bien bitartean, emakumeek bainua hartzen dute ibaian, eta berrogei bat zentimetroko sakonera duen hilobia zulatzen dute. Hilobian, gizon edo emakume baten irudia ikus daiteke, ibaiko buztina era guztietako lekariarekin eta arroz-haziekin nahasiz egina. Sinbolikoki, emakumeek ura ematen diote hildakoari, eta ehorzleak otoitz bat erreztatzen du.

Gero, hurrengo bi egunetan, herritar denak agurtutako pertsonaren etxera joaten dira, eta adinekoek jatekoa eta edatekoa eramaten diote hilobira. Hirugarren egunean, giroa alaitzen hasten da; izan ere, hildakoa jada elkartu da bere arbasoekin. Familia osoa eta lagunak etxean elkartzen dira berriro. Ehorzlea, berriz, hilobira joaten da beste bost adinekorekin, eta han, azken libazioa eta jatordua egiten dute.

Ospakizunak

Joli, munduaren urteroko berritzea.

Martxorako gari-jotzea amaituta dago, eta uza etxeetan bilduta egoten da. Nekazaritzaren ikuspegitik, adivasiek atsedean har dezakete, eta hogeita hamar eguneko jaia egiten dute; izan ere, apirilean eta maiatzean ezkontzak izaten dira, eta horrez gain, lurrak prestatu behar dituzte ekaineko euriteetarako (tribuen komunitateetan, ohikoak dira ezkontza bateratuak egitea, kostuak aurrezten baitira).

Adivasien urtea nekazaritzako lanen arabera dago antolatuta. Lursailak ekainean ereiten dira, eta aurrez, montzoia iritsi aurretik, hazien eskaintza egin behar da. Bederatzi hilabetez, otsailera arte (hilabete hori barne), nekazaritza-lanaren fase bakoitza erlijio-zeremonia batekin dago lotuta, eta festa-egun bat egiten da. Montzoia aurreko bi hilabeteetan (hau da, apirilean eta maiatzean), ezkontzak izaten dira, eta horrez gain, lursailak garbitu eta ereiteko prestatzen dira. Martxoa tarteko hilabetea da, eta jai egiten dute.

Adivasien artea

Warli pintura warlien arte-adierazpena da.

Pintura mota hori antzinakoa da. Ezkontza-errituan du jatorria, eta ugalkortasunarekin dago lotuta. Ezkonberrien etxeko hormetan margotzen da, eta emakume ezkonduak egiten dute. Gaur egun, herri horien bizimodua eragozten duten gizarte-, egitura- eta ingurumen-aldaketak **adierazteko eta salatze bide bat** da warli pintura; hau da, herri horien bereizgarriak aldarrikatzeko modu bat.

Erabiltzen dituzten **materialak** naturalak dira; adibidez, arroz-semola edo gorozkiekin nahasitako lurra. Mastekatutako banbu-adar txikiz egiten dira pintzelak. Pinturak xehetasun txikiz beterik daude, den-denak oso garrantzitsuak.

Warli pinturak warlien bizitzaz eta inguruaz **dihardu**, haien baliabideak, osasuna, familia, animaliak, errituak eta mundu-ikuskera adierazten ditu.

Pintura **kultura-adierazpena** da warlientzat, beren arazoak **salatzeko bide bat**. Gainera, warlien nortasun indigena balioesteko sinbolo garrantzitsua da. Arte hori antolamendu tribalean txertatzen da, eta kosmosari buruz duten ikuskera adierazten du. Marrazkien soiltasunaren atzean mezuaren konplexutasuna dago: tradizioak, sinesmenak eta ohiturak adierazteaz gain, egunegun okertzen ari den gizarte- eta ingurumen-egoera ere salatzen du.

Bada pertsona horien egitekoa ikus-entzunezkoen bidez eguneratzen duen erakunde bat ere: Gurjarvani erakundea. Hainbat talde tribalen grabazioak egiten ditu, haien jatorrizko hizkuntzak errespetatuz. Adivasien eta warlien kulturari buruzko informazio gehiago izan dezakezu, erakunde horren webgunean sartuta: <http://www.gurjarvani.org/>.





Musika eta dantza

Musika eta dantza adivasiarren bizitzako ezinbesteko alderdiak dira. Uanean unekoak eta naturalak dira, antzinako tradizioek finkaturiko eredu bat gorde duten arren. Egoera bakoitzari tresna eta erritmo jakin bat dagokio, eta jendeak badaki zein diren. Bizitza ospatzeko modu bat da. Ez dago ezagutza horiek jasotzen dituen liburu edo dokumenturik. Beraz, kultura horretakoa ez den edozein pertsonak ezagutza horiek ikasi nahi baditu, behatuz eta komunitatearekin hitz eginez ikasi beharko ditu. Gainera, aldaerak daude adivasiarren tribuen artean.

Musika eta dantza haien bizitzan, lanetan eta adorazio-zikloan integratuta daude. Alde batetik, bizitzaren zikloa dago: jaiotza, ezkontza eta heriotza. Beste alde batetik, jaiak eta ospakizunak daude, urteko nekazaritza-zikloei oso lotuak (lehenago aipatu dugun bezala).



Musika-tresnak

Adivasiarren komunitateek beren musika-tresnak egiten dituzte; askotarikoak dira, eta basoetatik ateratako materialekin eginda daude.

Besteak beste, haize-instrumentuak, harizkoak, larruz egindakoak, banbuz egindakoak eta metalezkoak aipatu behar dira. Hainbat festa eta ospakizunetan jotzen dituzte, espirituak dei egiteko edota, besterik gabe, abereak larrean eta basoan dauden bitartean denbora pasatzeko.

Emakumeek ere jotzen dituzte zenbait musika-tresna, baina gehienak gizonek erabiltzen dituzte. Aldiz, abesteari dagokionez, oro har emakumeek zuzentzen dute, nahiz eta badiren abesten duten gizonak ere.



7.6 KASTA-SISTEMA

Hinduen erlijio-tradizioan, **brahman** esaten zaio apaizen kastako kideari (lau kastetatik garrantzitsuenak), eta apaizek nahiz erregearen aholkulariek osatzen dute. Garai vedikoan (K.a. V. mendean), apaizek bakarrik abesten zituzten *Rig-vedaren* ereserkiak, sakrifizioak egiteko. Ereserki haiek ezin zituen abestu brahmana ez zen beste inork; heriotza-zigorra zuen horretara ausartzen zenak. Ereserkiak abesteko baimena aitek semei ematen zieten, abeslarien familietan.



Brahman beraren eramaile direla diote, unibertsoaren euskarri den botere sakratua dutela. Antzina, jainkotzat hartzen ziren gizon-emakumeen artean (bai eta jainkoen jainkotzat ere, Manuren legeetan adierazten den bezala). Liburu horren arabera, jainkoak nahierara egiteko eta desegiteko boterea zuten brahmanek, kreazioaren eta dharmaren (erlijioa) jaun baitziren.

Brahmanaren egitekoak erlijioarekin daude lotuta, zehazki: vedak eta smritiak aztertzea eta irakastea, eta jainkoei opariak egitea. *Brahmanak Vedáren* jakinduriaren zaindariak dira, eta beste bi kastei irakatsi behar diete, bi aldiz jaiotakoak: txatriak (gerlari politikoak) eta vaisiyak (nekazariak eta merkatariek). Aldiz, inoiz ez diete sudrei (esklaboak) irakatsi behar, eta are gutxiago ukiezei, bekatu larria baita hori, errege txatriak tortura fisikoaren bidez zigortu beharreko bekatu larria.



7.7 BOST ZENTZUMENEN ADIVASIEEN MANDALA.

Adivasien komunitateetan bezala, mandalaren bidez iritziak bateratzeko gune bat jarri nahi dugu, eztabaidatzeko leku bat; izan ere, Indiako komunitate aborigenek batzar bidezko sistema dute. Gune horretan, askotariko objektuak aurkituko dituzte; hain zuzen ere, objektu horiek deskribatuko ditugu ondorengo lerroetan, labur-labur:

Mahua loreen girlanda: mahua loreak adivasiek orain dela mende askotatik erabiltzen dituzten loreak dira. Lore horiekin, besteak beste, jendeari ongi etorri "formala" egiteko girlandak egiten dituzte. Girlandarekin batera, kopetan (bekain artean) jarri ohi den puntu gorria (bindia) egiten dute, eta horrekin batera, arroz ale bat jartzen dute, adivasien kulturako elikagai garrantzitsuen, baita Indiako kulturakoa ere.



Arrantzarako tresnak: Arrantzarako hainbat neurritako tresnak erabiltzen dira: arrain txikiak arrantzatzeko erabiltzen dena, erakusketan dagoena, eta emakumeek erabili ohi dituzten sare handiak, esaterako.

Emakume adivasiei buruzko ibilbideko panel batean, elkarlanean egindako arrantzari buruzko informazioa dago. Hona hemen horretarako erabiltzen duten sareetako bat. (bideoa)



Espezieak: Adivasien kulturean, oro har Indiako gizarte osoan bezala, espezieak gastronomiaren ezaugarri nagusietako bat dira.

Intsentsua: Errituetan erabiltzen dute, girotzeko. (bideoa)

Fruitu lehorrak: Indian, askotariko fruitu lehorrak erabiltzen dituzte, janaria prestatzeko, anakardoak eta kakahueteak, batez ere. Zenbait adivasik anakardoak landatzen dituzte, gero saltzeko; dena den, gogorazai behar da adivasien labore nagusiak arroza eta barazkiak direla, beren elikadurarako erabiltzen dituztenak.



Sendabelarrak eta esentziak (bideoa): Indiako aborigenek, bai eta munduko beste komunitate indigena askok ere, beren ingurune naturaleko sendabelarrak erabiltzen dituzte gaixotasunetatik sendatzeko. ALBOANek laguntzen dituen komunitate adivasiek sendabelar batzuk komertzializatzen dituzte (Aadi Aushadi, Dedapada eta Unai).



Bermiloia kopetako puntua edo bindia egiteko: Bindia (Chandlo, gujarateraz) (sanskritoko bindu hitzetik eratorria; 'tanta', 'partikula txikia' edo 'puntua') kopeta apaintzeko elementu bat da, Asia hegoaldean (batez ere, Indian)¹ eta Asiaren hego-ekialdean erabiltzen dena. Tradizioz, kopetaren erdialdean, bekainetatik gertu, margotzen den puntu gorrixka da, baina puntuaren orde besta ikur bat edota bitxi bat jar daiteke. Besteak beste, material hauek erabiltzen dira xede horretarako:

Zirtzilua sudurrean: Ohitura zahar hori emakumeen amonek burutzen dute; izan ere, tradizioaren arabera, amonek beren iloben sudurrak zulatu behar dituzte, haiek ezkondu aurretik. Herri-tradizioaren arabera, ohitura hori emakumeak gizonarenganako zuen mendekotasunaren eta mirespenaren ikurtzat sortu zen. Azpimarratu behar da piercinga sudurraren alde batean zein bestean egiten dela, emakumea zein etniatakoa den arabera. Gizonei dagokienez, aroa bi sudur-zuloen artean jartzen denean, Septum esaten zaio, eta zenbait etnia-talderi dagokie, bereziki. Antzina, defendatzea zuen xede, etsaiaren aurrean itxura basatiagoa ematen baitzuen. Egun, emakumeek ere erabiltzen dute ikur estetikitatzat, eta gainera, gizarte-estatusa zehazten du. Rajastan inguruko talde tribaletako zenbait emakumek urrezko aro handiak dituzte beren Septumean.

Arropak eta apaingarriak: Mandalan, adivasien arropa tipikoak aurkituko dituzu, bai eta emakumeek erabiltzen dituzten eskumuturreko eta orkatilako apaingarriak ere.

Hiru hizkuntzatan idatzitako liburuak: Mandalan, objektuen, fruituen, animalien eta abarren irudiak ageri diren liburuak eta posterrak aurkituko dituzu, hiru hizkuntzatan: ingelesa, hindua eta gujaratia.

Arbel-ziria: Indian, haurrek arbel-ziriak erabiltzen dituzte koaderno modura.

Ura eta esnea garraiatzeko ontzia: Ontzi horiek ura garraiatzeko erabiltzen dira, ur bila joateko distantzia luzeak egin behar diren kasuetarako; oro har, emakumeek eta neskek egin ohi dituzte zeregin horiek. Jendeak edateko ura gordetzeko ere erabiltzen dira. Horregatik, zeramikaz eta altzairu herdoilgaitzez egiten zituzten; egun, zeramika gutxiago erabiltzen den arren, asko ikusten dira oraindik, ura fresko gordetzen baitute.



Zure Bizitza Indian Tu Vida en India



**Irakasle goarenitzako jardueren proposamenak
(Fotokopiak egiteko)**



ALBOAN

Jesulek sortu eta bultzatutako Fundazioa
ONG promovida por los Jesuitas
www.alboan.org



Aurki ezazu zeure abentura! Crea tu propia aventura!

Jarraian Indiaren inguruko aspektu ezberdinak zelan ezagutu azaltzen dizugu.
A continuación te explicamos cómo puedes conocer diferentes aspectos de India.

1 	· ZOAZ 27. PANELERA ETA ERABAKI NOLA JARRAITU ZURE BIZITZA INDIAN. · ACUDE AL PANEL N 27 Y DECIDE CÓMO CONTINUAR TU VIDA EN INDIA.
2 	· ERABAKI NOLA JARRAITU ZEURE ABENTURA. ZER NAHI DUZU IZAN HELDUA ZARENEAN? · DECIDE CÓMO CONTINUAR TU AVENTURA, ¿QUÉ TE GUSTARÍA SER DE MAYOR? PUEDES SER: P.15 ADIVASI - ADIVASIA P.21 PERTENECIENTE AL SISTEMA DE CASTAS - KASTA SISTEMAREN PARTE.
3 	· JARRAI EZAZU INDIA SAKONAGO EZAGUTZEN. · SIGUE CONOCIENDO INDIA MÁS A FONDO. PUEDES CONTINUAR APRENDIENDO SOBRE: P.9 EDUCACIÓN - HEZKUNTZA P.12 RASGOS CULTURALES - KULTURA EZAUGARRIAK
4 	· HASI ORAIN IBILIDE BERRI BAT: · COMENZÁ OTRO ITINERARIO DIFERENTE EN: P.3 NIÑO - MUTILA P.6 NIÑA - NESKA · EDO ERAKUSKETA GUZTIA AZTERTU BADUZU, ZOAZ 5 ZENTZUMENEN MANDALARA. · Ó SI YA HAS REALIZADO TODOS LOS DISTINTOS ITINERARIOS ACUDE A LA MANDALA ADIVASI DE LOS 5 SENTIDOS
5 	· ERABIL ITZAZU ZEURE ZENTZUMENAK MANDALAN DAUDEN OBJEKTUAK BEHATZEKO. GAINERA IKASITAKO GAUZEN INGURUKO BIDEOAK IKUSI AHAL IZANGO DITUZU. · UTILIZÁ TUS SENTIDOS PARA EXPLORAR ESTOS OBJETOS. ADÉMÁS PUEDES VER VÍDEOS SOBRE COSAS QUE HAS APRENDIDO EN EL TRANSURSO DE LA EXPOSICIÓN.



8. JARDUEREN PROPOSAMENAK

JARDUERA: ERAKUSKETA IKUSI AURRETIK

1. HEZKUNTZARI BURUZKO datuak INDIAN

- **India** munduko bigarren herrialde populatuena da: **1.050 milioi biztanletik gora ditu**.
- **Indiako gobernuak agindu zuen** haur guztiek Lehen Hezkuntza izateko aukera izango zutela 2015. urterako.
- **350 milioi pertsona baino gehiago analfabetoak dira**, eta pertsona horietatik 245 milioi emakumeak dira.
- **Irakaskuntza publikoaren kalitatea oso eskasa da**. Herrixketako eskola publikoetan, laugarren maila gainditzen duten haurren %74k ez daki ez irakurtzen ez idazten.
- Indiako haurren %50 Lehen Hezkuntzan dago matrikulatuta, baina haur horien %54k soilik lortzen du zikloa amaitzea.
- **Lehen Hezkuntzan**: nesken %73,3 joaten da erregulartasunez eskolara; mutilen kasuan, %80,3 joaten da eskolara.
- **Bigarren Hezkuntzan**: mutilen asistentzia-tasa %70,6 da; nesken kasuan, berriz, %56,2koa da.
- **Landa-eremuetako neska-mutilen %20 ez doa inoiz eskolara**. Hamarretik hiruk eskolara joateari uzten diote lehen urtean. Gainerakoen artean, bik eskolatzearen bosgarren urtea amaitu baino lehen utziko diote joateari, eta beste bik zortzigarren mailara heldu baino lehen utziko diote. Baliabide faltagatik, **neska-mutilek** ikasketez gain, **beste etxeko lan batzuk** ere egin behar dituzte, hala nola abereak zaindu, ur bila joan eta, zenbaitetan, etxetik kanpo lan egin.
- **Nesken egoera are okerragoa da**. Emakumeen %50 soilik dago alfabetatuta; gizonen kasuan, berriz, %65,5 dago alfabetatuta.
- **Neskek askoz lehenago uzten dute eskola**, etxeko ekonomian eta etxeko lanetan laguntzeko.

Bilatu Indiari buruzko informazioa, eta erantzun galdera hauei:

2. INDIA ZENBAKITAN

- Zergatik da hain garrantzitsua hezkuntza?
- Zer da kalitatezko hezkuntza?
- Nor dira dalitak? Eta adivasiak?
- Zure ustez, zer zailtasun dituzte adivasiek hezkuntzarako aukera izateko?
- Hezkuntzari dagokionez, neskek eta mutilek zailtasun berak al dituzte?

Hiriburua New Delhi da. Horrez gain, badira beste hiri garrantzitsu batzuk ere, adibidez:

- Bombay
- Calcuta
- Madrás
- Bangalore
- Hyderabad
- Bopthal

Indiako biztanleria arraza, kultura eta talde etniko ugari osatzen dute. Gehienek zibilizazio vedikoa sortu zuten ariarren jatorrikoak dira; kasta-sistema zurrun bat ezarri zuten, egun oraindik indarrean dena. Bestalde, iparraldean, oraindik hautematen dira arabiarren eta mongoliarren inbasioen eraginak (VII-XII. mendeetan eta XII. mendean, hurrenez hurren).



Pertsona horien bizitzari buruzko zenbait datu*::

	EMAKUMEAK	GIZONAK
Bizi-itxaropena jaiotzean		
Pertsona helduen alfabetizazio-tasa		
Giza Garapenaren Indizean duen postua		

PROPOSAMENAK:

- Egin mapa bat Indiako hiri garrantzitsuenak adieraziz, eta saiatu asmatzen zer populazio duen bakoitzak. Gero, pentsatu zergatik biltzen den biztanleria hori guztia hiri horietan zehazki.
- Bilatu aurreko taula betetzeko informazioa*.

3. ZER DAKIGU INDIARI BURUZ?

Galderen zerrenda.

- Zer herrialde daude Indiarekin mugan?
- Zer erlijio praktikatzen dituzte Indian?
- Zer hizkuntza hitz egiten dira?
- Zure ustez, zer lotura daude Indiako kulturaren eta gure kulturaren artean?
- Ezagutzen al duzu Indiako idazlerik?
- Indiar jatorriko zer pertsonaia historiko edo ezagun ezagutzen dituzu?
- Ezagutzen al duzu herrialde horretako inor?
- Eta Indiar bidaia duen inor? Zer kontatu dizu?
- Zer irudi duzu herrialde horretaz? Nolakoa da paisaia? Nola bizi da jendea?
- Zertan jarduten dute? Zer ohitura dituzte? Azpimarratu Indiako zenbait ezaugarri.



ERAKUSKETA IKUSI BITARTEAN

1. ZUZENA ALA OKERRA? EDOTA, ERLATIBOA?

Saiatu adierazpen hauek zuzenak ala okerrak diren asmatzen. Edota erlatiboak dira? Erakusketako jarduera guztiak egin eta gero, joan erdiko mandalara, eta eztabaidatu zure ikaskideekin gaiari buruz.

ADIERAZPENAK	ZUZENA	OKERRA	ERLATIBOA
India herrialde pobrea da			
Emakumeek ez dute eskubiderik Indian			
Indiako legediak ez ditu babesten herritar guztiak			
Indiako haurrek ezin dute ikasi, lan egiteko betebeharra dutelako			
Etorkizunean lanbide ona izateko balio du hezkuntzak.			
Kulturen arteko elkarbizitza baketsua izan da beti Indian			



Adivasien komunitateetan, herrixkaren buru den eta erabaki guztiak hartzen dituen pertsona bat dago			
Adivasiak oihanean bizi dira, modu iraunkorrean			
Kasten sistema jada ez dago indarrean Indian			
Adivasien komunitateetan, ezkontzen direnean ohikoa da dotea			
Adivasiak, batez ere, ehizari esker bizi dira			
Warliarren artea kultura hinduaren parte da			
Emakume adivasiak familia zaintzeaz arduratzen dira			

2. IKUSI DUZUN BEZALA, INDIAN, EMAKUMEEK (BATEZ ERE, HINDUEK) ETA GIZONEK EZ DITUZTE BIZI-BALDINTZA BERAK. BAINA... OSO DESBERDINA AL DA EMAKUMEEEN EGOERA ZU BIZI ZAREN GIZARTEAN? ADIERAZI TAULA HONETAN NORK EGITEN DITUEN JARDUERA HAUEK ZURE ETXEAN.

	AITA	AMA	SEMEA/K	ALABA/K	FAMILIA-UNITATEA.
Arropa-garbigailua jarri, eta arropa eseki					
Ohea egin					
Erosketak egin					
Koadro bat zintzilikatu					
Jatekoa prestatu					
Platerak garbitu edo ontzi-garbigailua jarri					
Etiket kanpo lan egin					
Entxufeak konpondu					
Lixatu					
Loreak ureztatu					
Seme-alabei medikuarengana lagundu					
Guraso Elkarteko bileretara joan					
Haurrak eskolaz kanpoko jardueretara eraman					
Seme-alabak eraman kirol-txapelketetara					
Xurgagailuaz garbitu					

Jarraitu hurrengo jarduera egiten, eta denak amaitzean, joan 5 zentzumenen mandalara. Bertan, zure erantzunak ikaskideekin eztabaidatu ahal izango dituzu.

3. 3. ADIERAZI X BATEZ ZER DEN ZURE USTEZ OINARRIZKO BEHAR BAT PERTSONA BATENTZAT.

- ☐ LEHEN HEZKUNTZAKO IKASKETAK
- ☐ BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASKETAK
- ☐ BATXILERGOA EDO ANTZEKO EGITEA
- ☐ PAGA
- ☐ ESKOLA GERTU IZATEA
- ☐ ORDENAGAILU PERTSONALA
- ☐ LIBURUAK ETA KOADERNOAK
- ☐ TELEBISTA

- ☐ EDATEKO URA IZATEA
- ☐ ELEKTRIZITATEA IZATEA
- ☐ HERRIAN EDATEKO URA IZATEA
- ☐ MEDIKUA ESKURAGARRI IZATEA
- ☐ EGUNEAN HIRU JATORDU EGITEA
- ☐ JOLASTEA
- ☐ ETXEA IZATEA
- ☐ BOTIKAK IZATEA



HIRU TAULAK BETE ONDOREN, JOAN MANDALA NAGUSIRA, ETA ADIERAZI ZER HIRU ERANTZUN EMAN DITUZUN ETA ZERGATIK IKASGELAKO BESTE KIDEEI. PERTSONA BAT (JARDUERA BAKOITZEKO BAT) ARDURATUKO DA ATERATZEN DITUZUEN ONDORIOAK AKTAN JASOTZEAZ.

ERAKUSKETAREN ONDOREN

1. BIDEOA: HEZKUNTZA DENENTZAT (<https://www.youtube.com/watch?v=zoeBVlzLxJ4>) (30 min.)

2. ERANTZUN GALDERA HAUEI, ETA HITZ EGIN HORIEI BURUZ IKASGELAKO GAINERAKO KIDEEKIN

1. Zergatik da garrantzitsua hezkuntza?
2. Zerk eragiten du hezkuntza-aukerari dagokionez hainbesteko aldea izatea munduan? Egin zerrenda bat bururatzen zaizkizun arrazoi guztiekin.
3. Zer da Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainia (HMK)? Zer dira Milurteko Garapen Helburuak? Nabigatu Interneten, eta asmatu!

3. JARDUERA ANIZKOITZA

Erakusketa honetan, ziur, Indiari buruzko gauza asko eta asko ikasiko zenituen. Orain, han bizi diren hainbat errealitate ezagutzen dituzunez, zeure buruari galdetuko diozu ea nola lagun dezakezun munduko pertsona guztiek (zehazki, adivasiek) kalitatezko hezkuntza izan dezaten. Hasteko, ekarri gogora bisitaldiaren egunean atera zenituzten ondorioak, eta lotu aurreko jardueran (Hezkuntza denentzat bideoa) ateratakoekin.

Bururatzen al zaizu zuk ikasitakoa interesgarri gerta dakioken inor? Pentsatu al duzu zure familiarengan eta lagunengan? Eta munduko gainerako pertsonengan? Hemen, egin ditzakezun hainbat aukera aurkezten dizkizugu:

- a. Lotu zure ikastetxea Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astearekin, aurreko gauzatuko diren hainbat ekintzatan parte hartuz.
- b. ALBOAN elkarteak, metodologia interesgarria landu dugu: ERABAKIAK ALDATU. Datuak eta zifrak aztertzekeo jarduerak bat egitea da asmoa, eta gauzak hobeto nola kudea daitezkeen aztertzen ahalegintzea. Horrela, datuak aztertuz, zure gertukoengan eragiteko aukera izango duzu, eta lortutako emaitzak oinarri hartuta, haiek mobilizatzeko jarduerak bat proposa dezakezu: bideo bat, iritzi-artikulu bat komunikabide batean, etab. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gure webgunean: <http://www.tomalosdatos.alboan.org/eu/>





Bibliografía

- Corral, J.A.: LOS ADIVASIS DE GUJERAT. Cultura aborígen y su actualidad en el s. XXI. Mensajero, S.A.U. argitaletxea, Bilbo, 2008.
- Sen, A.: INDIA CONTEMPORANEA. Entre la modernidad y la tradición. Gedisa, S.A. argitaletxea, Bartzelona, 2007.
- Manier, B.: CUANDO LAS MUJERES HAYAN DESAPARECIDO. La eliminación de las niñas en India y Asia, Ediciones Cátedra (Grupo Anaya, S.A.), Madril, 2007.
- Devi, N.: LANDING FOR CHANGE... A compilation on the Status of Women Farmers and Womens' Land Rights in India, India: Women in Development (IWID).
- Le monde la vie. El atlas de las minorías, Editorial UNED. ISBN 978-84-938072-5-5
- Le monde la vie. El atlas de las religiones, Editorial UNED. ISBN 978-84-938072-2-1
- TOWARDS GENDER BUDGETING IN TAMILNADU, Social Watch - Tamilnadu, India.
- Roy, Arundhati: RETÓRICA BÉLICA, Anagrama S.A. argitaletxea (Liberduplex S.L.), Bartzelona, 2005.
- Sukhadeo Thorat irakaslea: SOCIAL EMPOWERMENT OF THE SCHEDULED CASTES, Tamil Nadu: Mullai Arts & Crafts, 2007.
- F. Franco, J. Macwan eta S. Ramanathan: EL COLUMPIO DE SEDA. El universo cultural de las mujeres intocables de la India, Icaria argitaletxea, Antrazyt bilduma, Bartzelona, 2000.
- Fr. J.A. Corral, s.j.: STORIES FOR MORAL AND SOCIAL EDUCATION. Book 4. Vyara: S.J. Anand Press, 2009.
- Fr. J.A. Corral, s.j.: STORIES FOR MORAL AND SOCIAL EDUCATION. Book 3. Vyara: S.J. Anand Press, 2009.
- Fr. J.A. Corral, s.j.: STORIES FOR MORAL AND SOCIAL EDUCATION. Book 2. Vyara: S.J. Anand Press, 2009.
- Fr. J.A. Corral, s.j.: STORIES FOR MORAL AND SOCIAL EDUCATION. Book 1. Vyara: S.J. Anand Press, 2009.

WEBGUNEAK

- www.gurjarvani.org
- <http://www.guiadelmundo.org.uy/cd/countries/ind/History.html>
- <http://womanstats.org/newmapspage.html>
- <http://lawmin.nic.in/olwing/coi/coi-english/coi-indexenglish.htm>
- <https://www.cia.gov/index.html>
- <http://www.unicef.es/>
- <http://www.imf.org/external/spanish/>
- <http://india.gov.in/>
- http://upload.wikimedia.org/wikipedia/commons/2/2d/India_decadal_growth_rate_map.svg
- <http://wcd.nic.in/>
- <http://tribal.gov.in/Content/AudioVisuals.aspx>
- <http://india.gov.in/topics/social-development/women>
- <http://www.censusindia.gov.in/>
- <http://www.solive.es/Bolet%C3%ADn%20mayo%202010.pdf>
- <http://www.fundacioncenteferrer.org/es/?gclid=CKe18LDUqbgCFUGWtAodQHkA8g>
- www.adivasis.org
- <http://www.undp.org/content/undp/es/home.html>
- <http://hdr.undp.org/es/estadisticas/>
- <http://www.imf.org/external/spanish/>

MATERIAL PROPIOAK

- Indian murgil zaitez adivasiekin erakusketa: <http://www.educacion.alboan.org/eu/materials/137>
- India iruditan erakusketa: <http://www.educacion.alboan.org/es/materials/282>
- Hezkuntza denentzat Gujeraten ikus-entzunezko materiala: <http://www.educacion.alboan.org/eu/materials/177>

26



25

KULTUR-EZAGARRIAK



12. Anltasuna eta Batasuna



IRIMAKO ANIZTASUNA AINAKO ALDEKOTAN
HEKINETEN DA, HOLA HOLA GURUGAZOEN
JANAREN ELURTAN, HAN ARRO
TASATZARAK, OROIN TROPAK
KONKATIA GURUTSU ETXAKOAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA
ALDEKOTAN HIRIAREN GURUTSU BAKAR BAKAR
BATZEN DAIR.



DA HIRIAREN OROIN ETXAKOAK KONKATIA
BATZEN DAIR, HAN ARRO TROPAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA

HOLA HOLA GURUGAZOEN
JANAREN ELURTAN, HAN ARRO
TASATZARAK, OROIN TROPAK
KONKATIA GURUTSU ETXAKOAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA

KULTURA HIRIAREN GURUTSU BAKAR BAKAR
BATZEN DAIR, HAN ARRO TROPAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA
BATZEN DAIR, HAN ARRO TROPAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA



23

23. Valskyas



22

LOS VALSKYAS CONFORMAN EL PERCIBI DENTRO DE LAS CACI
DE LA ANIA, HIRIAREN GURUTSU BAKAR BAKAR
BATZEN DAIR, HAN ARRO TROPAK
KONKATIA GURUTSU ETXAKOAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA



GURUGAZOEN
JANAREN ELURTAN, HAN ARRO
TASATZARAK, OROIN TROPAK
KONKATIA GURUTSU ETXAKOAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA



kasten
sistema



27

TB

30

Adivasi

16. Adivasi-eguh bat




LOS VALSKYAS CONFORMAN EL PERCIBI DENTRO DE LAS CACI
DE LA ANIA, HIRIAREN GURUTSU BAKAR BAKAR
BATZEN DAIR, HAN ARRO TROPAK
KONKATIA GURUTSU ETXAKOAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA



GURUGAZOEN
JANAREN ELURTAN, HAN ARRO
TASATZARAK, OROIN TROPAK
KONKATIA GURUTSU ETXAKOAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA

LOS VALSKYAS CONFORMAN EL PERCIBI DENTRO DE LAS CACI
DE LA ANIA, HIRIAREN GURUTSU BAKAR BAKAR
BATZEN DAIR, HAN ARRO TROPAK
KONKATIA GURUTSU ETXAKOAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA

LOS VALSKYAS CONFORMAN EL PERCIBI DENTRO DE LAS CACI
DE LA ANIA, HIRIAREN GURUTSU BAKAR BAKAR
BATZEN DAIR, HAN ARRO TROPAK
KONKATIA GURUTSU ETXAKOAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA



Hezkuntza



09. Hezkuntza eta Kulturaren Legak

LOS VALSKYAS CONFORMAN EL PERCIBI DENTRO DE LAS CACI
DE LA ANIA, HIRIAREN GURUTSU BAKAR BAKAR
BATZEN DAIR, HAN ARRO TROPAK
KONKATIA GURUTSU ETXAKOAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA

LOS VALSKYAS CONFORMAN EL PERCIBI DENTRO DE LAS CACI
DE LA ANIA, HIRIAREN GURUTSU BAKAR BAKAR
BATZEN DAIR, HAN ARRO TROPAK
KONKATIA GURUTSU ETXAKOAK
KONKATIA FUERA ETXAKOAK, KULTURAREN
KULTURAK, HIRIAREN ETXAKOAK KONKATIA



20

19

10



MUTILÄ
(3/4/5/28 PANELAK)

MUTLA
(3/4/5/28 PANELAK)



11



ALBOAN

SEDE BILBAO

Padre Lojendio, 2, 2º

48008 – Bilbao

Teléfono: 944 151 135

Fax: 944 161 938

SEDE PAMPLONA - IRUÑEA

Avenida Barañain, 2

31011 – Pamplona

Teléfono: 948 231 302

Fax: 948 264 308

SEDE DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

San Sebastián C/ Ronda, 7, 4º I

20001 – San Sebastián

Teléfono: 943 275 173

Fax: 943 320 267

SEDE VITORIA - GASTEIZ

C/ Monseñor Estenaga, 1

01002 Vitoria-Gasteiz

Teléfono: 650 605 254

www.alboan.org

E-mail: alboan@alboan.org

